

2017 - 2018 IKASTURTEA

JANTOKIKO ERABILPENAREN ARAUDIA

2017/18 IKASTURTEA HASI DA ETA GUZTION ARTEAN JANTOKIKO FUNTZIONAMENDU EGOKIA LORTZEKO ASMOZ, ALDEZ AURRETIK HONAKO ARAUDI HONEN BERRI EMAN NAHI DIZUEGU:

- Jantoki zerbitzua kurtso hasieratik azken egunerarte izango da.
- Fakturazioa (Irailan, abenduan eta ekainean izan ezik) banketxetik, hile bukaeran edota hilearen hasierako egunetan egingo da.
- Ikasturte honetan **ohiko ikasleei** (egunero erabiltzen dutenak), **4,60€** kobratuko zaie menua.
- **Jantokia noizbehinka** erabili nahi dutenak, aurreko egunean goizeko lehen orduetan (08:30-09:30) idazkaritzan apuntatu behar dira. Menua **5,20 €** kobratuko zaie. Zerbitzu hau hile amaieran eskuz ordainduko da.
- Kuotaren erdia deskontatuko da bost egun baino gehiago jarraian faltatu ezkeroko jantokira eta **aurretiaz abisatuz**. Baita ere ikasle talde batek jarduera osagarriaren bat egiten duenean eta piknik zerbitzurik behar ez dutenean.
- Ekintza osagarriaren bat dagoenean, etxetik ekartzea edo picnica eskatzeko aukera egongo da. **Gogoratu aukeratzen dena ikasturte osorako izango dela** (Eranskina I).
- Jantokirako abisu guztiak (huts egiteak, dieta astringenteak,...) zuzenean idazkaritzan edo telefonoz eman behar dira aurreko egunetik edo goizeko lehenengo orduan (08:30-09:30).
- Jantoki orduetan ikasleren bat atera behar bada (musika, txistu...), gurasoen baimena sinatuta ekarri behar du (Eranskina II).
- Haur Hezkuntzako ume guztiak motxila bat ekarriko dute mantal bat, hobeto mangaduna, eta nezesertxoa, hortz-eskubila eta hortzorearekin. Ostiralero etxera eramango dituzte garbitzera, berriro astelehean bueltatzeko. **Ez ahaztu izena ipinita izan behar dutela.**
- 2 urteko umeek siestarako erabiltzen dituzten izarak eta sakuak garbitu behar direnean etxera eramango dituzte.
- HH-ko ikasleen arropak erosoak izatea gomendatzen dugu. Gerrikoak, tiranteak..ekiditu.
- Lehen Hezkuntzako ikasle bakoitzak mahai-zapi pare bat eta nezesertxo bat izan behar ditu bere hortz-eskubila eta hortzorearekin. Guzti hau bere kasileron gordeko du eta astero etxera eramango du garbitzera astelehenetan berriro ekartzeko. **Ez ahaztu izena ipintzea.**
- Jantokiko ikasleak ez diren umeak jantokiko jolasordura hurbiltzen badira, jantokiko arauak errespetatu beharko dituzte beste guztiak bezala.
- Jardunaldi murriztuan (3-4-5 urteko ikasleak) heldu batek batu behar ditu. Lehen Hezkuntzako ikasleak berriz, bakarrik joateko aukera izango dute, salbuzpenak salbu.
- Jantoki zerbitzu honi buruz proposamen, arazo, keka...bat izan ezkeroko, **jantokiko arduradunarengana edo zuzendaritzara zuzendu, gustoz entzungo zaitue.**

JANTOKIKO ARDURADUNA ETA ZUZENDARITZA